



BEZEROEKIN ERLAZIOA

Gure denda fisikoari dagokionez, bertara gerturatzeko aukera dago eta bertan pertsona batekin harremanetan jarri, edozein dudari erantzuna emateko prest gaude eta une oro bezeroaren beharrak asetzeko ere.



Denda fisikoan esku orri batzuk edukiko ditugu han sartzen den edo pasatzen den jendeak gure produktuak ikus ditzan. Dendako eskaparatean, gure webgunean link-a eta dauzkagun sare sozialak jarriko ditugu, jendeak gure produktuak ezagutarazteko. Telebista, irrati edo propaganda empresa ibilgailuen kanpoan jarriko ditugu.



Horrez gain, gure webgunearen bitartez gurekin komunikatu daiteke ere, gure telefono zenbakiaren bidez, dei batekin, edo gure emailaren bidez mezu bat idatziz.



Sare sozialei dagokionez, gurekin harremanetan jartzeko aukera oso erraza da, Instagrameko kontua dugu eta bertan, zuzeneko mezu batekin gurekin hitz egiteko aukera dago. Facebook eta twitter-eko kontu bat ere badugu, eta bertan mezua idazteko aukera ere badago. Gainera, sare sozial guztietan, gure enpresa eta produktuaren iguruko argazkiak eta informazioa eguneratuko ditugu, edozeinek ikus dezan.

Enpresa langile bat bezala ikusiko gaitu bezeroak, bezero bat arazoekin etortzen denean, arazo guztiak konponduko dizkiogu gure zerbitzuen barne dagoenean. Horrez gain, bezeroa gure atzetik egon ordez, gu kezkatuko gara beraien ongi-egonagatik, bezeroen gainean dagoen enpresa moduan ikusiko gaituzte.

Gure produktua oso erabilgarria dela eta bete behar dituen funtzioak betetzen dituela ikusiko dute. Arazoak eduki baditu, tratu ona jaso eta oso azkar konpondu dugula bezeroetaz paso egin gabe.